



Bizitza bezain erreala



ARTIFIZIORIK GABEKO ANTZERKIA

EVAREN ALABAK

ANTZERKI TALDEA



ANTZERKIAK BATZEN GAITU

Gure ondorengo neska gazteentzat mundu hobea eraiki nahi dugu.

EVAREN ALABAK gara. Gure ondorengo neska gazteentzat gizarte parekideagoa, mundu hobea eraiki nahi duen emakume taldea gara.

Gure antzezlanak bizitza bezain errealak eta gordinak dira. Ikusleekin konplizitatea lortu nahi dugu begietara begiratuz. Gure lana tranparik gabea da, xumea bezain bizia eta zirraraz betea. Saio guztiak dira desberdinak eta bakarrak. Feminismoaz, berdintasunaz, egunerokoaz, tabuez, gezurrez... emakumeon bizitzaz ari gara. Errespetuz, ironiaz eta umorez. **Antzerkiak batzen gaitu.**

CROMLECH



ANTZEZLANAREN NONDIK NORAKOAK

Hiru emakume, ama eta bi alabak, aitaren heriotzaren ondoren elkartzean izandako elkarrizketa sakon batean kokatzen da antzezlan. Elkarrizketa horren ondoren ezer ez da berdina izango. Antzezpena aurrera joan ahala familia barruko sekretuak agertzen joango dira eta honek euren artean gaizki ulertu, harridura eta erruduntasuna sortuko badu ere, ziur ikusleari barre algarak sortaraziko dizkiola.

**HARRIDURA,
ERRUNDUNTASUNA
ETA...BARRE ALGARAK!**

PROPOSAMEN ARTISTIKOA

Antzerki honen berezitasuna EZ duen horretan datza; Ez du arropa aldetik handitasunik, Ez du argi efekturik, Ez du tranparik. Dena ikuslearen begiradaren aurrean gertatzen da.

Ikuslearekiko konexioa sortzea eta gertutasun emozionala dira ardatzak. Ikuslea, ikusle izateaz gain, konplize izatea nahi dugu, pertsonaiekin identifikatuta sentitzea, baita gertatzen ari denarekin ere. Hori dela eta, herri bakoitzean sortzen den giroa desberdina da, ikusle taldearen berezitasunaren arabera. Hain zuzen ere, horrek egiten du antzezlanaren hain berezi eta gertukoa izatea. Une oro bizirik dagoen obra bat da.



HELBURUAK

- Gure kontraesanak bizitzea eta hausnartzea, gure esperientzia, akatsak, lehentasunak eta jaso ditugun ikasketak aintzat hartuz.
- Biktimismoatik ihes egitea, bizitasuna emanez. Umorea da horretarako erabiltzen dugun tresna. Emakumeak dira protagonista, bizitzaren gorabeheretan ahotsa izan dutelako edota isilik egon direlako.
- Prototipo argi eta irmo guztietatik urruntzea, edozein dianaren erdian jartzeko prest, bizitzan ezer ez baita hain argia, eta inor ez baita agertzen maskararik edo mozorrorik gabe. Ezta gu ere.
- Ikusleen artean espazio intimoa eta konfiantzazkoa sortzea. Horretarako, ikusleak zirkulu bat eginez eseriko dira, Cromlech-eko lekukoaren edo *ortostatoen* moduan.

GURE KONPROMEZUA

- Ikusezina ikusarazi. Aurpegia eta hitzak jartzea une oro ezkutuan dauden egoerei, gure eguneroko errealitate txikiei, oharkabean gertatzen direnei, ikasitako ohitura denari.
- Pasioz, argitasunez, errespetuz eta umorez ahalduentzea. Erantzukizunak onartzea.
- Artearen entretenimendu hutsa ez izatea ahalbidetzea. Kulturak elkar ulertzea sustatu eta bultzatzea gaizki ikasi duguna desikasteko eta gizarte gisa bide berri eta ausarta hasteko.
- Parte-hartzaileekiko lotura eta erresonantzia, garen bezala erakusteko askatasuna ahalbidetuz.

ANTZEZLEAK

- Marta Garcia.
- Nieves Peña.
- Sonia Sanz.
- Elena Aranbarri.

ZUZENDARIA

- Elena Aranbarri.

FORMATOA

- Antzerkia gela batean burutuko da, non erdian antzezleak kokatuko diren eta euren inguruan eserlekuekin "Cromlech"

(zirkulu) baten forma islatu nahian, ikusleak egongo diren.

- Ikusle kopurua gelaren tamainaren arabera izango da,
- Ez dugu kalean egitea aholkatzen.
- Antzezpenak 45-50 minutuko iraupena izango du.
- Ikuslea 16 urtetik gorakoa izatea aholkatzen dugu.

Antzezlana gehienbat euskaraz da, nahiz eta pertsonaia batek gaztelaniaz hitz egin.